

ZERGA ITUNDUEN BIDEZKO DIRU-BILKETA BIZKAIAN

2022KO URRIA

I. ZENBATEKO OROKORRAK

a) Diru-bilketa likidoa, guztira

Urrira arte zerga itunduen bidez bildutako diru-kopuru metatua % 24,5 gehitu da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta: 7.858,3 milioi euro bildu dira; 2021eko hilabete berean 6.313,3 milioi bildu ziren. Horrenbestez, diru-bilketa likidoan 1.545,0 milioiko eta % 93,7ko alde positiboa dago ekitaldirako aurreikusitako guztizko zenbatekoarekin. Zenbateko hori 8.386,9 milioi euro izan da.

Emaitzak aztertzean, kontuan hartu behar da bi ekitaldietako bilketen zifren homogeneotasunik eza; izan ere, aurreko ekitaldian eta aurtengoan hartutako neurriek, osasun-krisiaren, energiaren prezioen eta inflazioaren ondorioz zergadunek dituzten likidezia-arazoak arintzekoak, eragina dute bai zerga-sarreraren egutegian, bai, jakina, bildutako zenbatekoetan. Zehazki, 2021eko urriko bilketa indargabetuta dago zerga eredu batzuk aurkezteko epearen mugaeguna aldatu izanaren ondorioz; hori dela eta, diru-sarrerak azaroan gauzatu ziren, eta geroratutako bilketa 824 milioi eurora iritsi zen. Horregatik, zerga itunduen bilketa osoaren hazkunde homogeneoa % 10,1era iritsiko litzateke.

Barneko doikuntzei dagokienez, adierazi beharra dago Bizkaiak 222,4 milioi euro gehiago ordaindu dizkiela beste lurralde historikoei, hau da, % 18,7 gehiago. Bestalde, Estatutik jasotako doikuntzak % 29,5 handitu dira.

URRIAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	8.488.048,0	6.898.483,9	1.589.564,2	23,0
FFAAen barneko doikuntza guztira	-1.410.007,5	-1.187.604,6	-222.402,9	18,7
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	7.078.040,5	5.710.879,2	1.367.161,3	23,9
Guztizko doikuntza Estatuarekin	780.275,8	602.443,3	177.832,6	29,5
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	7.858.316,3	6.313.322,5	1.544.993,8	24,5
Gauzatze-ehunekoa	%93,7	%86,0		



b) Kudeaketa propioko zergei dagozkien diru-bilketa gordina eta itzulketak

Kudeaketa propioko zerga itunduen bidezko diru-bilketa gordina 9.941,6 milioi eurokoa izan da, aurreko urteko hil berean lortutakoa baino % 23,0 gehiago, orduan 8.084,0 milioi bildu ziren eta. Bestalde, itzulketak % 20,7 gehitu dira: iaz 2.373,1 milioi itzuli ziren eta aurten 2.863,5 milioi. Bi inguruabar horiek batera jarrita, bildutako kopuru likidoa % 23,9 handitu da.

URRIAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa gordina	9.941.569,5	8.083.992,6	1.857.576,8	23,0
Itzulitakoak	-2.863.529,0	-2.373.113,4	-490.415,6	20,7
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	7.078.040,5	5.710.879,2	1.367.161,3	23,9

II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko zergen bilketa likidoa % 23,9 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 4.017,2 milioi eurora iritsiz; zerga-bilketa gordina % 21,2 hazi da, eta itzulketak, berriz, % 2,8. Zeharkako zergen bidez 3.010,8 milioi euro bildu dira, hau da, iaz baino % 24,2 gehiago. Hain zuzen ere, gora egin dute bai bildutako kopuru gordinak (% 24,6), bai itzulketek (% 25,1). Tasak eta beste sarrera batzuk % 11,4 igo dira; 50,0 milioi euro izan dira guztira, eta aurreko ekitaldian, 44,9 milioi euro izan ziren.

URRIAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA									
mila eurotan	Diru-bilketa gordina			Itzulitakoak			Diru-bilketa likidoa		
	2022	2021	diferen.	2022	2021	%	2022	2021	%
Zuzeneko zergak	4.497.422,7	3.709.536,3	21,2	480.195,9	467.256,8	2,8	4.017.226,7	3.242.279,5	23,9
PFEZa	3.376.048,6	2.861.037,0	18,0	451.088,4	434.546,1	3,8	2.924.960,2	2.426.490,9	20,5
Sozietateen gaineko zerga	876.227,5	621.105,3	41,1	14.285,2	19.778,6	-27,8	861.942,3	601.326,7	43,3
Gainerako zuzeneko zergak	245.146,6	227.394,0	7,8	14.822,3	12.932,1	14,6	230.324,3	214.461,9	7,4
Zeharkako zergak	5.391.648,4	4.327.522,6	24,6	2.380.825,7	1.903.810,3	25,1	3.010.822,7	2.423.712,3	24,2
BEZa	3.969.962,7	2.990.507,9	32,8	948.713,4	707.851,6	34,0	3.021.249,2	2.282.656,3	32,4
BEZa barneko doikuntza				975.552,3	730.345,3	33,6	-975.552,3	-730.345,3	-33,6
Zerga bereziak	1.260.814,2	1.196.234,4	5,4	454.976,7	464.676,8	-2,1	805.837,5	731.557,6	10,2
Gainerako zeharkako zergak	160.871,5	140.780,3	14,3	1.583,3	936,6	69,0	159.288,2	139.843,7	13,9
Tasak eta Bestelako Sarrerak	52.498,4	46.933,7	11,9	2.507,3	2.046,2	22,5	49.991,1	44.887,4	11,4
BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA	9.941.569,5	8.083.992,6	23,0	2.863.529,0	2.373.113,4	20,7	7.078.040,5	5.710.879,2	23,9
Doikuntzak Estatuarekin	1.065.804,5	828.455,6	28,6	285.528,7	226.012,4	26,3	780.275,8	602.443,3	29,5
Doikuntzak BEZa	1.014.426,4	780.719,0	29,9	10.731,4	11.109,6	-3,4	1.003.694,9	769.609,4	30,4
Doikuntzak Zerga bereziak	51.378,1	47.736,6	7,6	274.797,3	214.902,8	27,9	-223.419,1	-167.166,2	-33,7
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	11.007.374,0	8.912.448,2	23,5	3.149.057,6	2.599.125,7	21,2	7.858.316,3	6.313.322,5	24,5



a) PFEZa

Aurreko urteko urrikoaren aldean, PFEZaren bidez % 20,5 gehiago bildu da; izan ere, zerga-bilketa gordina % 18,0 areagotu da eta itzulketak % 3,8 handitu dira.

Zerga honen osagai guztietan bilakaera positiboa izan da. Izan ere, gehikuntza izan da lanaren etekinen gaineko atxikipenetan (% 17,2), kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenetan (% 11,7), kapital higiezinaren etekinen gaineko atxikipenetan (% 21,7), ondare-irabazien gaineko atxikipenetan (% 7,2), lanbide-jardueren, enpresa-jardueren eta arte-jardueren ordainketa zatikatuetan (% 47,4) eta sarien gaineko karga berezian: aurtengo ekitaldian 26,3 milioi; aurrekoan, 6,8 milioi. Kuota diferentzialaren emaitza ere negatiboa da; zehazki, 109,0 milioi eurokoa. Iaz, aldiz, 138,0 milioi eurokoa izan zen.

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen kuota diferentzialak % 52,9 irabazi du (zerga-bilketa gordina % 49,8 igo da eta 711,7 milioitan kokatuta da, urtebeteko lehenago izandako 475,2 milioiren aldean; itzuleren bolumena (13,2 milioi) % 27,8 hazi da). Aurreko epigrafean aipatzen joan diren gainerako zergak kontuan hartuta, zerga honen bilketa % 43,3 handitu da: 2021eko urrira arte 601,3 milioi lortu ziren eta ekitaldi honetan 861,9 milioi.

c) Gainerako zuzeneko zergak

Zuzeneko gainerako zergen bidezko diru-bilketa likidoak % 7,4 egin du gora. Izan ere, aurreko urteko urriko 214,5 milioietatik aurtengo 230,3 milioietara igo da. Nabarmentzekoa da behera egin dutela oinordetza eta dohaintzen gaineko zergak (-% 17,9), ondarearen gaineko zergak (-% 1,5) eta, batez ere, energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergak, elektrizitatearen prezioaren neurrigabeko hazkundearen neurri aringarri gisa hartutako zergaren eteteak eraginda, 9,9 milioitik 0,1 milioira igaro baita. Bestalde, kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zergak handitu egin dira (% 4,7), baita ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ere: duela urtebete 35,0 milioi izatetik gaur egun 74,5 milioi izatera igaro baita.

d) BEZa

BEZaren bidez % 32,4 gehiago bildu da: aurreko ekitaldian 2.282,7 milioi euro bildu ziren, eta aurtengoan 3.021,2 milioi euro. Bilakaera positiboa diru-bilketa gordinaren % 32,8ko irabaziaren ondorioa da, 2.990,5 milioi eurotik 3.970,0 milioi eurora igo baita, eta itzulketak % 34,0 igo izanaren ondorioa. Zerga honetan egindako barne doikuntzaren ondorioz % 33,6 gehitu dira ordainketak (975,6 milioi euro): Arabak jaso du doikuntza hori, hau da, 292,8 milioi euro (% 48,5), baita Gipuzkoak ere, 682,8 milioi euro (% 28,1 gehiago).



e) Zerga bereziak

Zerga berezien bilketa % 10,2 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; igoera izan dute diru-bilketa gordinean (% 5,4) eta itzulketetan, berriz, jaitsiera (% 2,1). Gora egin dute hidrokarburoek (%12,2), tabako laboreek (% 16,1) eta garagardoek (% 54,0). Ordea, alkoholek (-% 10,8) eta elektrizitateak (-% 72,4) behera egin dute. Zerga hauen barneko doikuntzak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiak 434,5 milioi euro ordaindu dizkie Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiei (% 3,9 gutxiago). Lehenak 88,3 milioi jaso ditu (% 18,4 gutxiago) eta bigarrenak 346,1 milioi (% 0,6 gehiago).

f) Zeharkako gainerako zergak

Zeharkako zergapetzearen gainerako figuren bidez % 13,9 gehiago bildu da guztira. Zehazki, honako zerga hauen diru-bilketa igo da: ondare-eskualdaketen gaineko zerga (% 5,2) egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (% 22,0), zenbait garraiobideren gaineko zerga (% 21,9), aseguru primen gaineko zergak (% 18,8) eta berotegi-gas fluordunen gaineko zergak (% 18,8); aitzitik, joko-jardueren gaineko zerga jaitsi egin da (-% 33,9).

g) Tasak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak eta beste sarrera batzuen diru-bilketa % 11,4 igo da; 44,9 milioi eurokoa zen, eta ekitaldi honetan 50,0 milioi euro bildu dira. Joko tasak % 102,6ko igoera izan du, honako hauek izan duten igoeraren ondorioz: makina eta aparatu automatikoen tasa (azken tasa hori 8,5 milioitik 17,6ra igo da), bingo jokoa (0,8tik 2,2 milioira) eta txartelak eta bestelako apustuak (% 55,6). Bestalde, III. kapituluko gainerako kontzeptu guztiak erori dira, premiamendu-errekarguak (-% 25,1) zein berandutze-interesak (-% 15,1) edo zerga-zehapenak (-% 21,0).

h) Estatuarekiko doikuntzak

BEZaren bidez urrira arte egindako diru-bilketari dagozkion Estatuarekiko doikuntzak, aurreko urtekoarekin alderatuta, % 30,4 hazi dira eta igoerak eman dira inportazioen gaineko diru-bilketan (% 43,4) zein barneko eragiketen gaineko diru-bilketan (% 6,8).

Fabrikazioko zerga berezien doikuntzen saldo negatiboak % 33,7 egin du gora, batez ere hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren barneko eragiketei dagozkien ordainketak % 29,6 igo direlako. Ordainketa horiek zati batean konpentsatu dira tabako laboreen gaineko zerga bereziaren (% 44,1) doikuntzagatiko kobrantzetan 4,6 milioiko gehikuntzarekin eta beste % 10,3ko gehikuntzarekin garagardoari dagozkionetan.



TRIBUTU ITUNDUEN BILDUTAKOA. Aurreko ekitaldiarekiko konp.
RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. Comparación ej. anterior

2022

Aldiak: urtarrila-urria
Periodos: enero-octubre

(euroak / euros)

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %Ejec
	2022	2021				
ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	2.771.308.612	2.363.711.761	407.596.851	17,2	3.020.000.000	91,8
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	94.198.463	84.304.429	9.894.034	11,7	88.000.000	107,0
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	40.396.579	33.202.460	7.194.119	21,7	48.000.000	84,2
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	28.867.657	26.926.916	1.940.741	7,2	32.000.000	90,2
SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	26.250.959	6.800.944	19.450.015	286,0	25.000.000	105,0
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS	72.973.761	49.509.135	23.464.626	47,4	80.000.000	91,2
PFEZ KUOTA DIFERENTZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	-109.035.838	-137.964.792	28.928.954	21,0	-11.000.000	*
PFEZ GUZTIRA / TOTAL I.R.P.F.	2.924.960.193	2.426.490.853	498.469.340	20,5	3.282.000.000	89,1
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	94.198.422	84.304.390	9.894.032	11,7	88.000.000	107,0
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	40.396.264	33.202.161	7.194.103	21,7	48.000.000	84,2
ONDARE IRABAZIEN GAINEKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	28.867.653	26.926.913	1.940.741	7,2	32.000.000	90,2
SOZIJETATEAK KUOTA DIFERENTZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	698.479.929	456.893.275	241.586.654	52,9	451.000.000	154,9
SOZIJETATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES	861.942.268	601.326.738	260.615.529	43,3	619.000.000	139,2
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO S/RENDA NO RESIDENTES	74.499.419	34.951.267	39.548.152	113,2	24.300.000	306,6
ONDARETZEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESSIONES Y DONACIONES	61.049.411	74.354.682	-13.305.271	-17,9	86.400.000	70,7
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	79.218.925	80.460.472	-1.241.546	-1,5	82.000.000	96,6
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMPTO. S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO	15.483.733	14.782.528	701.205	4,7	17.300.000	89,5
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMPTO S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	72.787	9.912.974	-9.840.187	-99,3	20.000.000	0,4
IRAUNGITAKO ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
BESTELAKO ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS	230.324.276	214.461.923	15.862.353	7,4	230.000.000	100,1
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	4.017.226.737	3.242.279.515	774.947.222	23,9	4.131.000.000	97,2
BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / IVA GESTIÓN PROPIA	3.021.249.241	2.282.656.267	738.592.973	32,4	2.069.013.400	146,0
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES	-975.552.282	-730.345.279	-245.207.003	-33,6		*
ONDARE ESKUALDAKETEN GIZ / IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	70.197.975	66.732.614	3.465.362	5,2	92.000.000	76,3
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMPTO. ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS	20.173.534	16.541.575	3.631.959	22,0	19.500.000	103,5
GARRAIBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	10.540.961	8.649.173	1.891.788	21,9	12.000.000	87,8
ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / IMPTOS. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	1.439.109	1.614.197	-175.088	-10,8	1.873.963	76,8
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	70.705	56.380	14.325	25,4	141.637	49,9
HIDROKARBURUOK / HIDROCARBUROS						
Barne eragiketak (tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl. Tipo autonómico)	661.140.985	589.479.553	71.661.432	12,2	793.642.500	83,3
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico	-18	-4.146	4.127	99,6		*
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	135.933.873	117.096.737	18.837.136	16,1	171.326.000	79,3
GARAGARDOA / CERVEZA	993.699	645.221	348.478	54,0	1.007.800	98,6
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	6.260.560	22.710.567	-16.450.006	-72,4	24.691.100	25,4
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALTMENTEN GIZ / IMPTO. S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	-1.365	-40.919	39.554	96,7		*
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS	51.812.541	43.598.587	8.213.683	18,8	52.000.000	99,6
JOKU JARDUERAREN GAINEKO ZERGA / IMPTO. S/ ACTIVIDADES DE JUEGO	2.100.789	3.178.518	-1.077.729	-33,9	4.500.000	46,7
BEROTEGI-EFETUKO GAS FLUORADUNEN GIZ / IMPTO. S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	1.357.286	1.142.974	214.312	18,8	1.300.000	104,4
FINANTZA-TRANSAKZIOEN GIZ / IMPTO. S/TRANSACCIONES FINANCIERAS					80.624.000	
ZENBAIT ZERBITZU DIGITALEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS SERVICIOS DIGITALES	3.105.114		3.105.114		7.900.000	39,3
IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	3.010.822.707	2.423.712.289	587.110.418	24,2	3.331.520.400	90,4
BINGOA / BINGO	2.207.957	762.135	1.445.822	189,7	1.200.000	184,0
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	17.576.636	8.508.293	9.068.342	106,6	20.000.000	87,9
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	3.312.492	2.128.610	1.183.882	55,6	3.200.000	103,5
JOKO-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO	23.097.085	11.399.038	11.698.047	102,6	24.400.000	94,7
PREMIAMENDU ERREKARGUA / RECARGOS DE APREMIO	7.397.007	9.877.826	-2.480.818	-25,1	12.000.000	61,6
BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DE DEMORA	12.150.339	14.313.455	-2.163.116	-15,1	17.300.000	70,2
ZEHAPENAK / SANCIONES	7.346.626	9.297.122	-1.950.497	-21,0	13.000.000	56,5
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	49.991.057	44.887.441	5.103.616	11,4	66.700.000	74,9
ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO	7.078.040.501	5.710.879.245	1.367.161.256	23,9	7.529.220.400	94,0
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES	713.073.122	497.370.852	215.702.270	43,4	685.304.000	104,1
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES	290.621.826	272.238.568	18.383.258	6,8	372.886.000	77,9
BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.	1.003.694.948	769.609.420	234.085.528	30,4	1.058.190.000	94,9
ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS	103.232	44.564	58.668	131,7	95.741	107,8
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	21.002.531	21.188.874	-186.343	-0,9	23.179.400	90,6
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES						
HIDROKARBUREN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	54.274	72.147	-17.873	-24,8	10.078	538,5
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	-270.261.427	-208.527.451	-61.733.976	-29,6	-250.438.300	*
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO	18	3.379	-3.361	-99,5		
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LABORES DE TABACO						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	15.176.471	10.530.779	4.645.692	44,1	15.620.900	97,2
GAGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	52.776	41.342	11.435	27,7	131.014	40,3
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	10.452.998	9.480.198	972.800	10,3	10.884.240	96,0
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES	-223.419.127	-167.166.169	-56.252.958	-33,7	-200.516.927	*
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	7.858.316.322	6.313.322.497	1.544.993.825	24,5	8.386.893.473	93,7

* Garrantzi txikiko ratioa / Ratio no significativo